

JUAN GOROSTIAGA BILBAO

(1905-1988)

Jaio Deustuan jaio zen, baina berak urtebete zuelarik, familia Getxora aldatzen da. Durangoko Jesuiten barnetegian egon zen ikasketak egiten. Gero, apaiz-bokazioari jarraikiz, Comillasen egin zuen hartako karrera, lizentziatura eta guzti. Ondoren Erromako Institutu Biblihora bidaltzen dute eta han Ekialde Hurbileko hizkuntzak ikasten ditu. Gaztedanik izan zuen hizkuntzetarako zaletasun hau. Comillasen bere ikaskide izan zen Manuel Agirregabiriak xehetasun hau kontatzen digu: “Ilevaba a todas partes en los bolsillos de su gardapolvo una biblioteca de libros en hebreo, griego y euskera..., a quien todos le admiraban por sus conocimientos de lenguas antiguas” Ikus **Euskera** (1978), 356.

Ingurumariko baldintzapenek baldintzatzen dute askotan gizonaren bizia, eta uste dut hori gertatu zitzaioala Gorostiaga jaunari ere. Sasoirik onenean zela, horra zorioneko gerra. Cubara abiatzen da. Han Zubizarreta apezpiku karmeldar bizkaitarrak Seminarioan irakasle jartzen du. Frantziskotarren komentuan ostaturik egoten zela ere badakit. Fraideek kontatu didatenez, bere gelan atril batean zabalik edukitzen zuen Azkueren hiztegia. Bere ikerketen helburua zen euskararen hitz-ondarean sailkapena egitea: alde batetik, euskarak bere-bereak dituen hitzak, eta, bestetik, kanpotik hartuak dituenak.

Gero Cubatik Mexicora joan eta han indio batzuen herrixketan jarriko da beroien apaiz bezala. Uste dut Mexicoko egotaldi horrek eragin handia egin ziola. Esaten zuen, hemengoan aldean, haiek direla benetako kristauak. Hona etorrita gero ere, behin baino gehiagotan egin zituen berriz itzuliak hara. Bere azken urteetan Algortako Trinitarioen komentuan bizi izan da.

Euskaltzaindiari dagozkion aldetik, 1932an urgazle izendatua izan zen; beraz, gerra aurretik. Euskaltzain oso, berriz, 1950. urteko azken egunetan, eta 1951. urteko Apirilaren 28an Bilboko Udaletxean egin zuen sarrera-hitzaldia, Nazario Oleaga jaunak egiten zizkiolarik ongi etorritzko hitzak. Orduan ez zegoen **Euskera** aldizkaririk, eta Zaitetik Guatemalan argitaratzen zuen *Euzko Gogoa*-n agertu zen hitzaldi hori (laburtua, nik uste). Titulua Aurkibidean dator: “Bizkai zaharreko izenak”. Ikus *Euzko Gogoa* (1952), 5-6 zenbakiak, 22. orrialdean. 1966. urtean Euskaltzaindiak liburuzain edo bibliotekari izendatu zuen.



Liburuak:

Epica y Lirica Vizcaína antigua, Bilbao, 1952.

Vocabulario del refranero vizcaíno de 1596, Salamanca, 1953.

Historia de la anteiglesia de Guecho, Bilbao, 1953.

Antología de poesía popular vasca, San Sebastián, 1955.

Artikuluak:

“El testimonio de la lengua en la Prehistoria. Ensayo de Paleontología lingüística vasca. Otro aspecto de la antigua religión euskaldun. Los nombres vascos del día festivo”. **Euskera** (1934), 274.

“El fondo primitivo de la lengua vasca o los grupos etimológicos” BAP (1953), 545.

“Toponimia céltica del País Vasco” BAP (1953), 211.

“Diccionario etimológico de la lengua vasca” **Euskera** (1958), 63.

“Euskera bat edo unificación del euskera” **Euskera** (1959), 96.

“Juan Antonio Mogel ta historia aurreko Espaiña” **Euskera** (1960), 168.

“Los nombres vascos de los días de la semana” **Euskera** (1959), 87.

“Los nombres vascos de los meses” **Euskera** (1958), 51.

“Polifacética tradición euskalduna” **Euskera** (1960), 317.

“Urtzi-Dios” *Riev* (1934), 672.

Erkiaga jaunaren sarrera-hitzaldiari berak eman zion erantzuna. Ikus **Euskera** (1974), 349.

Euskaltzaindian egin zuen azken hitzaldia Nazario Oleaga zenaren omenaldian izan zen. Ikus **Euskera** (1984), 491.

Beste aldizkari batzuetan ere baditu artikuluak: *Gernika*, *Munibe*, *Helmantica*, *Euzko Enda*, *Euzko Deya*, *Eusko Jakintza*, *Zumárraga*, etab. Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-n datoz lerrokatuak. Asko azpimarratzen zuen Gorostiaga jaunak latinak eta erromantzeek euskararen izan duten eragina. Berak zioenez, ez dugu euskararen historia sekulan ulertuko ez badugu kontutan hartzen hizkuntza honek erromanizatiotik hona beti izan dituela etxe-lagun bezala latina eta erromantzeak.

La “Gran Enciclopedia Vasca”-n ere egin zituen argitalpen edo bir-argitalpen batzuk. Hitzaurrea ere egin zion Retanak ateratako Azkueren edizioari.

FLV aldizkarian ere baditu lan batzuk, hala nola:

“El fondo primitivo de la lengua vasca” FLV (1982), 105.

“La niña arrebatada por la lamia” FLV (1984), 129.

Bere amets handiak izan ziren euskararen etorkia eta kristautasunaren lehen urratsak Euskal Herrian arakatzea. Ez dakit bere paperen artean horretaz zerbait utzi ote duen.

Arana-Martijari esker ikusi ahal izan ditut *Galea* Getxoko aldizkariak orain-tsu eskaini dizkion artikulu batzuk. “Ermitaño urbano” deitzen zaio bertan. Ekainaren 7an hil zen.

Goian bego gure euskaltzain eta adiskide jatorra.

L. V.